

36. FITXA. 2022ko laguntzak, azokak, hirietako merkataritza-guneak, egonekoa ez den merkataritza eta merkaturatzeko bide laburrak bultzatzeko

Nori zuzenduta: Toki erakundeak: **Udalerriak (udalak)** / Probintziak / **Eskualdeak** / 100.000 biztanletik gorako **udalerrien mankomunitateak** / **Eskualdeko kontseiluak**

Sartzeko esteka: [Azokak Hirietako merkataritza guneak](#)

Erreferentziako arauak: [BOE](#), ICT/565/2022 Agindua, ekainaren 15ekoa

Eremuak: Merkataritza toki-erakundeetan

Zenbatekoa: 60.494.350 €

Aurkezpen-amaiera data: 2022/08/05

Laburpena

Laguntza-lerro horiek **13. osagaian** daude jasota, "**ETEak bultzatzea**" izenekoan, 4. inbertsioan: "merkataritzaren sektorea bultzatzea". Helburu nagusia da diruz laguntzea **txikizkako merkataritza sektorea eguneratzerara eta modernizatzerara** bideratutako jarduketak garatzen dituzten proiektuak, **sektorea kontsumo-ohitura berrietara egokituz; saltegietan jasangarritasuna eta efizientzia hobetzen, eta birziklapena eta hondakinen berrerabilpena sustatzen lagunduko duten teknologia eta irtenbide berrien ezarpena sustatzea; eta bi arlo horietan prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea.**

Laguntza horien helburua da tokiko erakundeek, beren udal-mugapeko merkataritza-sektorearen baitan, garatzen dituzten **planak eta proiektuak** finantzatzea (**eduki teknologikoa, berritzailea eta jasangarritasunaren aldekoa** dutenak), eta baita **ekipamenduak hobetzeko** egiten direnak ere.

Merkataritza-gunetzat hartuko dira autonomia erkidegoak ofizialki aitortutako merkataritza-gune irekiak eta hirietako merkataritza-guneak, edo saltoki-okupazio handia duten hiriguneak edo bideak. Okupazio hori ehunekotan adieraziko da, merkataritza-espazioak jarduera-eremuaren guztizko espazioan betetzen dituen metro koadroak kontuan hartuta: ehunekoak % 50etik gorakoa izan beharko du merkataritza-gunetzat har dadin.

Onuradunak

Honako **toki erakunde** hauek jaso ahal izango dituzte ezarritako laguntzak:

→ **Udalerriek**, beren **udalek** ordezkatuta.

→ **Probintziek eta uharteek** probintziako diputazioen, foru-aldundien, kabildeen eta uharteko kontseiluen bidez.

→ **Eskualdeek** edo hainbat udalerrri elkartzen dituzten bestelako erakunde batzuek, autonomia erkidegoek sortuek, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak eta dagozkien autonomia-estatutuak arautzen dituena.

→ **Udalerrien mankomunitateek**, baldin eta 100.000 biztanletik gorako udalerriek ez badituzte ordezkatzen mankomunitateko biztanle guztien ehuneko hirurogei baino gehiago.

Onuradunak proiektuaren % 100 azpikontratatu dezake. Kasu horretan, alderdiek idatzizko kontratu bat egin beharko dute, eta emakida ebatzi aurretik aurkeztu beharko da. Udalaz gaindiko onuradunek proiektu bakar gisa aurkeztu beharko dute hainbat udalerriri eragiten dien proiektua, eta proiektu hori gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko dira.»

Jarduera-lerroak

- Bezeroen **informazio-tresnak** hartzeko proiektuak, makrodatuetan edo beste teknologia batzuetan oinarritutakoak.
- **Azoken eraldaketa digitalerako** proiektuak, kanal ugariko azoka eta erosketen esperientzia hobetzeko.
- **Kaleko merkataritza** eta merkaturatzeko bide laburrak **digitalki eraldatzeko** proiektuak.
- Udal-azokek, merkataritza guneek eta egonekoak ez diren azokek okupatutako eremuetako instalazioak, horien irisgarritasuna, ekipamendua eta egokitzapena **hobetzeko eta berregokitzeko proiektuak**, bai eta horien inguruko eremuetarakoak ere.
- Merkataritzak egiten dituen **intsumoen kontsumoa murrizteko** proiektuak eta horiek **ingurumena errespetatzen duten alternatibekin** ordezkatzeko proiektuak.
- Erositakoa **entregatzeko puntu adimendunak** instalatzea.
- **Energia-efizientzia** hobetzeko proiektuak.
- **Hondakinak birziklatzea edo berrerabiltzea** sustatzen duten ekintzak.
- **Gaitasun teknologikoen inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza.**

Gastuetarako aldi hautagarria

Gastuetarako aldi hautagarria deialdiaren laburpenean zehaztuko da.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

- Finantzaketaren xede izateko aurkezten diren inbertsio-proiektuak **lurralde nazionalean** gauzatu beharko dira.
- Egin beharreko **gutxieneko inbertsioa** biztanle kopuruaren arabera izango da:
 - 300.000 biztanletik gorako udalerrietan: 1.000.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
 - 100.000 eta 300.000 biztanle bitarteko udalerrietan: 500.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
 - **100.000 biztanletik beherako udalerrietan: 200.000 euroko gutxieneko inbertsioa.**
- Proiektua **elkarrekin finantzatu** ahal izango dute laguntzaren onuradunak eta kokatuta dagoen autonomia erkidegoak, eta ekarpen hori proiektuaren aurrekontu finantzagarriaren **% 40raino** iritsi ahal izango da.
- **Eman beharreko finantzaketaren zenbatekoa, gutxienez**, finantzagarritzat jotako proiektuaren aurrekontuaren **% 60 izango da eta, gehienez, % 100**, gehienez ere 2.000.000 euroko dirulaguntzara iritsiz.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Onuradun izan daitezkeenek laguntza-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute. Eskaera hori urteko kuotatan banatu ahal izango da, eta honako gastu-kategoria hauetako bat edo batzuk bildu:

- **Eraldaketa digitalera** bideratutako gastuak:
 - Bezeroaren arreta, ezagutza eta harekiko harremana hobetzea, eta bezeroa fidelizatzea, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz.

- Udal merkatuen, merkataritza-guneen eta merkaturatzeko bide laburren eraldaketa digitalean inbertitzea, bide digitalen bidezko salmentaren funtzionaltasunak txertatzeko, mantentzeko edo hobetzeko, hainbat bide erabiltzen dituzten negozio ereduak sustatzeko eta bezeroek ingurune digitalean erosteko orduan duten esperientzia hobetzeko.
 - Publizitatea, komunikazioa eta ikusgaitasuna hainbat bitarteko edo euskarri digitaletan, teknologia berriak erabiliz.
 - Merkatuari, lehiari edo SEOari buruzko metrikak eta analisiak.
 - Zibersegurtasunaren arloko soluzioak.
 - Teknologia berriak txertatzea, salmenta prozesuan hobekuntzak egiteko: establezimenduan eskaerak jasotzeko, erosteko eta erositako produktuak ordaintzeko prozesuak erraztea, hainbat bide gaitzeko formulen bidez, saltokietan sor daitezkeen ilarak eta pilaketak saihesteko.»
- **Saltokia eraldatzearekin** lotutako gastuak:
- Merkataritzaren arloko kudeaketa digitalizatzea, negozioaren barne-kudeaketako eragiketa bat edo gehiago optimizatuz, txertatuz edo automatizatuz, hornitzaileekiko harremanetik hasi eta azken bezeroarenganaino.
 - Tresna teknologikoak eskuratzea, negozioaren bideragarritasunari, eta eskualdatze edo belaunaldi-txandaketa potentzialari buruzko autodiagnostikoak egiteko.
 - Merkataritza ibiltaria eta merkaturatzeko bide laburrak digitalki eraldatzea.
 - Teknologia berriak txertatzea, salmenta prozesuan hobekuntzak egiteko: establezimenduan eskaerak jasotzeko, erosteko eta erositako produktuak ordaintzeko prozesuak erraztea, hainbat bide gaitzeko formulen bidez, saltokietan sor daitezkeen ilarak eta pilaketak saihesteko. Zerbitzu horiek abian jartzeko gune publikoetan egiten diren lanekin eta berritze lanekin lotutako gastuak diruz lagunduko dira, hala badagokio.
 - Udal azokek, merkataritza-guneek eta egonekoak ez diren azokek okupatutako eremuetako instalazioak, horien irisgarritasuna, ekipamenduak eta egokitzapena, eta horien alboko eremuetakoak hobetzeko lanetan eta berritze lanetan inbertitzea.
- **Jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularrarekin** lotutako gastuak.
- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan erabilera bakarreko produktuen kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzeko inbertsioak.
 - Produktuak banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea; kostuak eta ingurumenaren gaineko inpaktua murriztuko dituzten teknologia berriak eta lankidetzako ekosistemak ezartzea; eta azken milian arreta berezia jartzea.
- **Hornidura-kateari eta trazabilitateari** lotutako gastuak:
- Erosketak etxez etxe banatzeko eredu jasangarriak. Jarduketa horiek egiteko ibilgailuak erosteko dirulaguntzak eman ahal izango dira, bai eta azoketako, merkataritza-guneetako eta egonekoa ez den salmenta guneetako zamalanetan kargatzeko puntuak jartzeko ere.
 - Hiriguneetan logistika hobetuko duten biltegi estrategikoak sortzea.
 - Zamalanetarako guneen kudeaketa digitalizatzea, eta azoketatik edo merkataritza-guneetatik gertu dauden kaleetako aparkalekuen erreserbak digitalizatzea.
 - Erositakoa entregatzeko puntu adimendunak instalatzea.
 - Irtenbide teknologikoak, saltokietan energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko; oinarri teknologikoa duten prozesuak ezartzea, ekoeraginkorrak, edo hondakinak birziklatu eta berrerabiltzekoak.
 - Energia-iturri berriztagarriak instalatzea merkataritzarako erabiltzen diren eraikinak klimatizatzeke.
 - Jasangarritasuna eta eraginkortasuna areagotzera bideratutako beste jarduketa eta irtenbide batzuk, karbono gutxiko ekonomia baterantz, hondakinen sorrera murrizterantz, ekonomia zirkularrerantz eta zero xahuketarantz urratsak ematea dakartenak.

- **Hornidura-kateari eta trazabilitateari** lotutako gastuak:
 - Lankidetzeta-plataformak tokiko ekoizleentzat, merkataritzaren arloko ETEentzat eta banatzaileentzat, haien arteko elkarrekintza eta elkarlana bermatuko dituztenak.
 - Tokiko hornitzaileak edo '0 Km'-koak banatzaileen merkataritza elektronikoko webguneetan sar daitezen bultzatzeko gastuak.
 - Teknologia berrietan egindako inbertsioak, produktuaren trazabilitatea edo banaketa-bide osoan produktuaren beste ezaugarri batzuk ezagutzeko.
- Merkataritza sektoreko langile eta autonomoei zuzendutako prestakuntza-gastuak, honako hauei buruzkoak: trebetasunen inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza teorikoa eta praktikoa, tresna teknologikoen erabilera eta kudeaketa merkataritzan, marketin digitala, eta online salmentarekin lotutako datuen ustiaketa eta azterketa, horretarako aukeratutako bidea edozein dela ere; hizkuntzen arloko prestakuntza; eta merkataritza sektoreko negozio-ereduan produktuen ekonomia zirkularreko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko estrategiak sustatzeko sentsibilizazioa. Kontzeptu horren barruan, honako hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:
 - Jardunaldiak egiteko guneen alokairua.
 - Altzariak eta jardunaldiak egiteko behar diren ekipamenduen alokairua.
 - Jardunaldiak egiteko hirugarren bat azpikontratatzearekin lotutakoak, baldin eta hirugarrenarekin azpikontratutako jarduerak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Kasu horietan, onuradunak ordutegien parteak erantsi beharko ditu, jarduera horiek ematen dituzten langileek sinatuta.
 - Hizlarien ordainsariak.
 - Ikastaroen diseinu pedagogikoa egitea, tutorizatzea eta ikastaroa bera ematea, bai online, bai presentzialki.
 - Merkataritza sektoreko langileentzako eta autonomoentzako prestakuntza-materialak.
- Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk.
 - Merkataritza guneetan WiFi sareak ezartzea.
 - Udalerrietako azokei, azoka txikiei eta/edo salmenta ibiltariari buruzko informazioa ematen duten aplikazioak, tokitik gertu dauden ondare arkitektoniko eta historikoko elementuei, edo ekitaldi kultural zein artistikoei buruzko informazioa ere emango dutenak, turismo gastronomikoa, kulturala eta erosketetan oinarritutakoa sustatzeko.
 - Merkataritza-eskaintzaren seinaleetika integratua.
 - Merkataritza-gune irekiak sustatzeko ekintzak.

Balorazio-irizpideak

- Aurkeztutako proposamenaren edo jarduketaren **kalitate teknikoa** (0-5 puntu).
- Proposamenaren **egokigarritasuna**, konpondu nahi den arazoari eta/edo beharrari irtenbidea emateko. (0-5 puntu).
- Laguntza-eskabidean Europar Batasuneko MRRaren oinarriekin, Espainiako PRTRarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta dauden **jarduketaren kopurua**. Irizpidea **jarduketa bakoitzeko puntu batekoa** izango da. (0-10 puntu).
- Proiektuak **enplegua / belaunaldi-txandaketa sortzeko** duen gaitasuna, Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua handitzeko potentzial gisa ulertuta (0-5 puntu).
- Proiektuaren gaitasuna, udalerriko **merkataritza-eskaintza dinamizatzeko, eguneratzeko eta aberasteko, eta eskaintzan teknologia berriak txertatzeko**, edo merkataritza-jardueran behar bada handia izan duten guneetan merkataritza sustatzeko eta biziberritzeko (0-10 puntu).
- Proiektuaren gaitasuna, sektorean **berrikuntzak egiteko eta produktibitatea hobetzeko** (0-5 puntu).
- Proiektuaren ekarpena **ingurumen-kalitatea, energia-eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra** hobetzeari dagokionez (0-10 puntu).
- Internet bidez eta aurrez aurre **erosten duen erabiltzailearen esperientzia** hobetzeko gaitasuna (0-5 puntu).

- Merkataritza-jarduera handiko **bide publikoetan inbertitzea** eta irisgarritasuna hobetzea (0-10 puntu).
- **Hainbat motatako inbertsioak** dakartzaten proiektu integralak. (0-10 puntu).
- Jarduketan **onuradun izan daitezkeen saltokien ehunekoa** onuradunaren lurralde-mugapean dauden saltoki guztiei dagokienez (0-5 puntu).
- **Digitalizazio**-maila hobetzeko eta merkataritza-sektorearen **kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko** teknologiak txertatzen dituzten proiektuak (0-5 puntu).
- Baloratu egingo da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatutako ideia-lehiaketetan irabazle edo hautatuak izandako ideietako batzuk sartzea (5 puntu).
- **Toki erakundeak edo kokatuta dagoen autonomia erkidegoak edo hiri autonomoak** proiektua **finantzatzeko** egindako ekarpena baloratuko da, baldin eta ekarpen horiek, gutxienez, proiektuaren kostuaren % 10 gainditzen badute. **Puntuazioa handiagoa izango da baterako finantzaketaren ehunekoa zenbat eta handiagoa izan** (0-10 puntu).

Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte.

Bestelako informazioa

Argibide gehiago:

<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/mercados-sostenibles/DescripcionGeneral/Paginas/Index.aspx>

Izapidetze elektronikoa derrigorrezkoa izango da prozeduraren fase guztietan. Laguntza lortzeko eskabideak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusira bidali behar dira, hura baita prozedura antolatu eta bideratzeko organo eskuduna. Eskabide-orriak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>) bete eta aurkeztu ahal izango dira, eta han egongo dira beharrezko bitarteko elektronikoak.